



Gaztelugatxeko San Joan, aukera bat Bizkaiko itsasertzarentzat

Partaidetza plana

Partaidetza Planaren helburuak



Partekatua den eta Bizkaiko Itsasertzarako garapen turistiko eta sozio-ekonomikoan garrantzi gehien duten agenteen adostasun maila handia duen **Gaztelugatxeko San Joan Biotopoaren jarduketarako eta kudeaketa integralerako dokumentua** izatea.



Bizkaiko Itsasertzaren garapen turistiko eta sozio-ekonomikoarekin zerikusia duten agente guztiei Gaztelugatxen garatuko den proiektua **helaraztea**, horren **inguruan lurralderako elkarbanatua den eta ilusioa sortzen duen proiektu bat egituratzeko**: konpromezua duten agenteen sare bat lortzea



Gaztelugatxeko Proiektu planean ezarri denarekin bat datozen **proiektu berriak edo jada garatzen ari diren proiektuak** identifikatzea



Gaztelugatxeko inguruan eta Bizkaiko Itsasertza osoan sor daitezkeen **proiektu eta inbertsio ekimenak** identifikatzea edo laguntzea

Partaidetza Planaren faseak

Aurreikusitako helburuak lortzeko, Bizkaiko Itsaertza-aren garapen turistiko eta sozio-ekonomikoarekin lotuta dauden **agenteekin Gaztelugatxeko proiektua sozializatzea** eta inbertsio aukerak identifikatzera bideratuta dagoen Partaidetza Plana hedatzea planteatzen da. Partaidetza Plan hau hurrengo lan faseetan egituratuko da, aurrerago azalduko direnak:

1. Partaidetza prozesu presentziala

1.1 Gaztelugatxeko San Joan Biotopoaren jarduketarako eta kudeaketa integralerako dokumentua agente gakoetara bidaltzea

Lehenik, lehentasunezkoak direla ezarri diren agenteen esku **Gaztelugatxeko San Joan Biotopoaren jarduketarako eta kudeaketa integralerako dokumentua eta horren laburpen exekutiboa** jarriko dira, irakur dezaten eta horren inguruan hausnar dezaten.

2018 Ekaina

1.2 Lan-mahai sektorial-geografikoak eta bakarkako bilerak martxan jartzea eta kudeatzea

Bigarrenik, Bizkaiko Itsasertza-aren turismo-sektorearekin lotuta dauden agenteei (publiko eta pribatuak) **proiektuaren sozializazioan** lan egingo da, proiektua ezagu dezaten, erlazionatutako ekimenen garapenean egon daitekeen interesa probatzeko eta agenteen konpromisu eta interes maila balioesteko.

2018 Ekaina - Urria

1.3 Inbertsio aukeren identifikazioa eta lanketa

Ondoren, Partaidetza Planak Gaztelugatxeko proiektuari lotutako **inbertsio aukera espezifikoak** identifikatuko ditu, ideia hauen garapena ahalazko inbertitzaileekin batera landuz.

2018 Ekaina - Azaroa

1.4 Partaidetza Planaren emaitzei buruzko ondorio txostena

Azkenik, **laburpen txosten** bat prestatuko da, prozesuan zehar parte hartu duten agenteak zeintzuk izan diren aurkezteko eta baita prozesu honen emaitzak ere, denboran zehar mantendu beharreko lan dinamikak sortuz.

2018 Abendua – 2019 Martxoa

2. Online partaidetza prozesua

2018 Ekaina – 2018 Abendua

Partaidetza Planaren irismena: eragina



Bizkaiko Foru Aldundiak inoiz egin duen **partaidetza** prozesurik zabalena:

+ 300 agente kontuan hartuz

Guztien proiektu baten aldeko konpromisoa, denona eta denontzat, ikuspegi zabal bat izanda

≈ 10 agente mota



Ilusioa eta garapen aukerak sortzea itsasertza osorako

36 herriekin lan eginez

Partaidetza Planaren irismena: geografiaren araberako banaketa

1. GUNEA: GAZTELUGATXE

- Bakio
- Bermeo

2. GUNEA: URDAIBAI

- Ajangiz
- Arratzu
- Busturia
- Ea
- Elantxobe
- Ereño
- Errigoiti
- Forua
- Gaategiz Arteaga
- Gernika-Lumo
- Ibarrangelu
- Kortezubi
- Mendata
- Morga
- Mundaka
- Murueta
- Muxika
- Nabarniz
- Sukarrieta

3. GUNEA: BUSTURIALDEA – LEA ARTIBAI


- Ispaster
- Lekeitio
- Mendexa
- Berriatua
- Ondarroa

4. GUNEA: EZKERRALDEA

- Muskiz
- Zierbana
- Santurtzi
- Portugalete

5. GUNEA: ESKUINALDEA – URIBE KOSTA

- Getxo
- Sopela
- Barrika
- Plentzia
- Gorniz
- Lemoiz



Partaidetza Planaren irismena: agente motak

Udal erakundeak



Udalak




**Turismo
Bulegoak**

Helburua: proiektua ezagutaraztea eta lan sare bat sortzea ekimen berriak identifikatzeko eta hauek martxan jartzen laguntzeko

Agente pribatuak



**Turismo aktiboko
enpresak eta
bestelako baliabide
turistikoak**



Ostalaritza



Ostatuak



Merkataritza

Helburua: proiektua ezagutaraztea eta Bizkaiko Itsasertzarako inbertsio aukera berriak identifikatzea, Gaztelugatxen garatuko den proiektua aprobetxatuz


**Bestelako
agenteak**



**Landa Garapeneko
Elkarteak**



**Harrera
zerbitzuetarako
agentziak**



**Kirol
Portuak**

Helburua: proiektua ezagutaraztea turismoari lotutako ekimenak sustatzeko Gaztelugatxek agente katalizatzaile bezala izan dezakeen ahalmenaren inguruan gogoeta sortzeko

Partaidetza Planean erabiliko diren metodologiak

Bakarkako bilerak

Lan-mahaiak bakarkako bilerekin osatuko dira hala behar dela uste den kasuetan ("sentikorra" dela pentsa daitekeen informazioa batzeko, informazio zehatza biltzeko agente gakoekin, etab.)

Ad hoc lan-mahaiak

Partaidetza Plana lan-mahai sektorial-geografikoen martxan jartzean oinarrituko da. Lan-mahai hauen kudeaketari begira, metodologia desberdinak erabiliko dira talde eta saio bakoitzaren helburu zehatzen arabera (txartel metodologia, Candor edo Kahoo bezalako *online* tresnen erabilera, etab.)

World Cafe Metodologia

Emitzak aurkezteko, prozesuan zehar sortu diren ideiak banatzeko etab.-erako egin daitezkeen saio irekiagoetan World Cafe metodologia erabil daitekeela uste da (balioetsi behar da ekimen zehatzetan metodologia hau edo erabateko beste batzuk erabiltzearen interesa)

Online galdetegia

Gainera, *online* galdetegi bat egitea planteatzen da, alde batetik lan-mahai desberdinetara apuntatzea ahalbidetzeko eta bestetik, hiritarren eta turismo sektorean edo antzeko sektoreetan lan egiten duten enpresen ikuspegia jasotzea ahalbidetzeko.

BBAG / Bizkaia Orekan / BFA-ko beste egitura batzuk

Partaidetza Plan osoan zehar Bizkaiko Foru Aldundiak burutzen dituen beste egitura batzuen partaidetza kontuan hartzea beharrezkoa izango da, hala notal, BBAG-ko lan-mahaiak edo Bizkaia Orekan-eko Eskualde Mahaiak. Koordinazio hau Bizkaiko Foru Aldundiko Turismo Zuzendaritzaren eta BEAZ Bizkaiaren bidez egin behar da.